

INFORMAZIO LOKUZIOA

2. Lauhilekoa (2018-2019)

Leire Iturregi Mardaras

1. GAIA: Beldur eszenikoa

1.1. SARRERA

- Lokuzioa:
 - Hitz egiteko modua
 - Esanahi bat duen hitz multzoa, esaldia.
- Esatariak (guretzat): ahots ona (irratian b.e.)
- Lokuzioaren garrantzia kazetaritzan: 2.maila?
- Edukia vs. Forma
 - Mezua transmititzeko moduak > ulermena. Mezuak ondo transmititzen ez badira, ez da mezua besteengana iritsiko.
 - Erredakzio ona + indar espresiboa = entzuleak adi. Erredakzio ona egokia, zehatza eta espresio onekoa bada emaitza ona lortuko da.
 - ➔ Prozesu komunikatibo arrakastatsua lortuko dugu.
- Autokritika: lehen pausua
 - Entzun
 - Praktika
 - Entzun
 - Praktika
 - Entzun
 - Praktika
 - Entzun
 - Praktika....
- Lokuzio zuzena lortzeko: 14 aste? Ez...

1.2. OINARRIZKO ARAU BATZUK

- Testua ulertu eta ezagutu (Iñaki Gabilondo)
- Emilio Prado:
 - Naturaltasuna: ahalik eta modu naturalenean lokutatzen ahalegindu, esaten ditugun bezala
 - Esana: ez dute igarri behar irakurtzen gaudenik
 - Norberaren estiloa
 - Tonu akademiko edo doktrinalik ez: tentsioa edo agresibitatea ekidin
 - Altuan irakurri grabatu aurretik
- Sinesgarria da? Ahalik eta naturalenean sinesgarri egiteko

Huertas eta Persona: *“Informazioan komeni da testuak esatea idatzirik egongo ez balira bezala... Baina ez dira naturaltasuna eta espontaneotasuna konfunditu behar... idatzitakotik abiatuta espontaneo iruditu behar du”.*

Balsebre: *“Esataria era berdinean adierazi behar da irakurtzen dagoenean eta inprobisatzen dagoenean”.*

1.3. AHOZKO KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIA

- Gure tradizioa: idatzizkoa (hezkuntza guztian)
- Tradizio anglosaxoia...
- Politika, adibidea...
- Balorazioa, azkenean: Zelan baloratuko gaituzte?
 - Egiten dugunagatik
 - Ematen dugun itxuragatik: janzkerak...
 - Esaten dugunagatik: edukiak
 - Esateko dugun moduagatik...
- Hor: hitza eta lokuzioaren garrantzia

1.4. BELDUR ESZENIKOA

Definizio orokorra: *“Komunikaziorako eraginkortasuna murriztu eta norbere gaitasun espresibo potentzialak azaltzea galarazten duen blokeo egoera”*

“Proba bat egiteko gaitasunari buruzko gaitasunari buruzko aurrepentsamendu negatiboen eraginez gorputzak duen erantzun psikofisikoa”

- Populazioaren %34ak sufritzen du.
- Unibertsitateko ikasleen %20-30ak
- %20ak sentitzen duen beldurra = fobia

“Beldur eszenikoari aurre egiteko gaitasun psikologikoen prestaketa ez dira lokuzioko irakasgaietako programetan aurreikusten” (Garcia Ureta, Toral et al., 2012:414)

Maila fisiologikoa zer sentitu daiteke:

1. Erritmo kardiakoaren azelerazioa
2. Izerditzea
3. Komunera joateko beharra
4. Tripako ondoeza
5. Buruko mina
6. Ahoa lehortzea
7. Begi niniak handitzea
8. Aurpegia gorritzea
9. Eztarria ixtea

10. Hotzikarak
11. Goralarria
12. Urduritasun orokortua

Maila kognitiboan zer sentitu daiteke:

1. Adimena blokeatzea
2. Frakaso aurreikusoena
3. Norbere buruarekiko hiperatentzia
4. Egindako hutsegiteak direnak baino handiago ikusteko joera
5. Kontzentrazio hutsegiteak
6. Autoexigentzia
7. Barregarri gelditzeari eta publikoaren gutxiespenari beldurra

Jokabide mailan zer sentitu daiteke:

1. Ekintza saihesten saiatzea
2. Egoeratik ihes egiteko nahia
3. Portaera automatikoak
4. Farfaila (farfuleo) edo presaka, azkarregi hitz egitea
5. Hitz totalka hastea
6. Ahotsaren bolumena bajua
7. Droga lasaigarri edo pizgarrien erabilera
8. Isilune anitz eta luzeak

.... Orduan zer egin behar dugu?

Yerkes-Dodson-en legea:

- Tentsioa beharrezkoa
- Zentratzea eta alerta egotea
- Estresak ↑ > Errendimenduak ↓
- Ezinbestekoa: norberaren "aktibazio puntua" ezagutzea
- Ariketak: erlajazioa, arnasketa

Zer egin dezakegu? Taktika batzuk... (Renny Yagosesky)

1. Erabakia: zalantzak utzi
2. Prestakuntza: edukiak menderatu

3. Erlajazioa: muskuluak, arnasa...
4. Imitazioa: ongi moldatzen denari
5. Birprogramazioa: bisualizazio positiboak
6. Hutsak barkatzen jakin eta...
7. **PRAKTIKA**

2. GAIA: Fonetikara hurbilketa

2.1. SARRERA

SAPIR (1921): *“Hizkuntza gizakiak bakarrik darabilen metodo bat da. Ez da institutiboa, eta deliberazioz produzitzen diren sinboloen sistema baten bidez ideiak, emozioak eta desirak komunikatzeko baliatzen da. Sinbolo hauek batez ere entzumenezkoak dira eta hizketa organoen bidez sortzen dira”* → Hezkuntza gabe ezinezkoa da hizkuntza garatzea

Ahozko hizkuntzaz ari da... hainbat daude

- **HIZKUNTZA (Lenguaje):** akordio edo konbentzio batzuetan oinarrituriko sistema oro.
Motak:
 - **Entzumenezkoa:**
 - Hitzekoa: esandako hitzak
 - Hitzik gabea: mortsea, sirenak, kanpaiak...
 - **Ikusmenezkoa:**
 - Hitzekoa: idatziriko hitzak
 - Hitzik gabea: mimika, keinuak, irudiak
 - **Ukimenezko hizkuntza:** brailea, agurrak
 - **Usaimenezkoa:** usaiak
- **HIZKUNTZA (lengua):** komunitate bakoitzak ezarritako zeinuen sistema konkretua
- **HIZKETA (habla):** norbanako bakoitzak hizkuntzaz egiten duen erabilera
- Hitzaren oinarritzko materia: **ahotsa**
- Ahotsaren oinarritzko materia: **airea**
- Hizketa ahozko fenomeno da
- Idazkera zein ahozko hizkuntza → ikasiriko baliabideak
- Gehiago ikasi eta gehiago hobetzeko aukera
 - >> Horretan saiatuko gara
- **Fonetika:** Hizketaren soinuen ikerketa eta ikasketaz arduratzen den diziplina

***Azterketa galdera: ZER DA FONETIKA?**

2.2. PROZESU DESBERDINAK

1. FISIKOA:

- Mezu komunikatiboa transmititzen duen soinu uhinen mugimendua
- Ahotik entzumenera
- Fonetika akustikoak aztertzen du


2. FISIOLGIKOA:

- Fonazio eta entzumen mekanismoak
- Prozesu fisikoak gauzatzen du
- Fonetika artikulatzailea (ahotsaren produkzioa, ahoskera)

3. PSIKIKOA:

- Abstrakzio prozesua
- Soinuei > irudiak eta esanahiak lotu
- Fonetika kognitiboa (produzioa eta pertzepzioan prozesu kognitiboak)

Hizkuntza	Mezuaren igorpena eta ulermena	Soinuak kontzeptu abstraktoetan bihurtzea
Garunaren ezker hemisferioan	Wernicke puntuan	Broca eremuan



2.3. SOINUEN ARTIKULAZIOA

Definizioa: Soinuak sortzeko ahotsaren organoek (ezpainak, mingaina, faringea etab) hartzen dituzten posizio berezien eta burutzen dituzten mugimenduen osotasuna da

Ahoskera: mugimendu eta posizionamendu horren ondorioz aireak ateratzen duen soinua da

Fonemak: Gutxieneko unitatea. Ezin daiteke gehiago zatikatu. Ez dute esanahirik, baina esanahiak bereizten laguntzen digute (bokalak, kontsonanteak)

2.3.1. BOKALEN AHOSKERA

Soinu bokalikoak: ez dute trabarik emitituak izaterakoan

SAILKAPENA:

1. Mihiaren altuerarengatik:

- Itxiak (edo altuak): **I-U**
- Erdi itxiak (edo erdi altuak): **E-O**
- Irekiak (edo baxuak): **A**


2. Mihia aurrean edo atzean badago:

- Aurrekoak (palatalak): **E-I**
- Zentralak: **A**
- Atzekoak (belarak): **O-U**

3. Ezpainen mugimenduaren arabera:

- Borobilduak: **O-U**
- Ez borobilduak: **A-E-I**

HIRU BOKALIKOA (edo Hellwag triangelua)



2.3.1. KONTSONANTEEN AHOSKERA

1. Artikulazio PUNTUAREN arabera

EZAUGARRIA	ORGANOAK	SOINUAK
Ezpainbikariak	Ezpainen arteko kontaktuaz sortuak	P, m, b
Ezpain-horzkariak	Goiko hortzak beheko ezpainean kokatuta	f
Hortzartekariak	Hortz artean kokatzen da mihia	D, z
Horzkari	Goiko hortzen aurka egiten du talka mihiak	T, d, ts, tz
Albeolar	Albeoloak ukitzen ditu mihiak	S, n, l, r
Sabaikari	Mihiak ahosabaia ukitzen du	Tx, ll, ñ
Belar	Mihiak ahosabai biguna ukitzen du	K, g, j

2. Artikulazio MODUAREN arabera

EZAUGARRIA	ORGANUAK	SOINUAK
Herskari	Aireari eutsi egiten zaio eta gero bat-batean jaulkitzen da	P, b, t, d, k, g
Sudurkari	Airea sudur zuloetatik ateratzen da	M, n, ñ
Frikatibo	Airea ahoaren irekiune txiki batetik ateratzen da pixkanaka	F, b, d, z, s, j, g
Afrikari	Aireari eutsi egiten zaio eta gero irekiune txiki patetik bat-batean jaulkitzen da	Tx, tz, ts
Albokari	Airea ahoaren alboetatik irteten da	L, ll
Dardarkari	Mihiak bibrazio bat edo gehiago sortzen ditu	R, rr

2.1. Kontsonante HERSKARIAK

Ezpainbikariak P, B	Ezpainen kontaktua	Papo, Baba, Bapo
Horzkari T, D	Mihiaren punta eta goiko hortzen arteko kontaktua	Tente, Denda
Belarrak K, G	Mihia eta ahosabai bigunaren arteko kontaktua	Korta, Gorde
Sabaikariak DD, TT	Ahosabaia eta mihiaren arteko kontaktua	Maddi, Kattalin

- Aireari eutsi egiten zaio eta gero bat-batean jaulki
- Euskarak zortzi ditu, gaztelerak sei.
- Artikulazio puntuak: ezpain-horzkari eta belarrak dira.

2.2. Kontsonante FRIKATIBOAK

- Artikulazio organoak estutuaz ahoskatzen dira
- Airea: artikulazio organuak marruskatuz irten.
- Euskarak lau, gaztelerak bost.
- Ahoskeran parte hartzen duten organuen arabera:

Ezpain-horzkariak F	Beheko ezpaina eta goiko hortzak	Afari, Feo
Albeolarrak S, Z, X Gaztelerak S	Mihia eta albeoloen arteko kontaktua	Su, Zu, Xoxo Sopa
Sabaikariak J Gazteleraz Y	Mihia eta ahosabai gogorraren arteko kontaktua	Jan Haya
Belarrak J	Mihia eta ahosabai bigunaren arteko kontaktua	Jan Ojo
Hortzartekari: Z	Mihia hortz artean	Zarza

2.3. Kontsonante AFRIKARIAK

Soinu hauek bi fasetan gauzatzen dira:

- Lehena herskaria (oztopo edo herskaketak)
- Bigarrena frikatiboa (marruskadura edo frikzioa)

Euskarak hiru soinu afrikari, gaztelerak bakarra.

Albeolarrak: Ts, Tz	Mihia eta albeoloen arteko kontaktua	Atso, Atzo
Sabaikariak: Tx	Mihia eta ahosabaiaren arteko kontaktua	Etxe Chico

2.4. Kontsonante SUDURKARIAK

- Ahosabai biguna erorita, airea sudurretik atera.
- Herskaketa bat ematen da ahoko irteeran sudurzuloak irekitzen diren bitartean.

Ezpainbikariak: M	Ezpainen kontaktua	Hemen, Mesa
Albeolarrak: N	Mihia albeoloekin kontaktuan	Ni, Nene
Sabaikariak: Ñ	Mihia eta ahosabaiarekin kontaktuan	Baina Año

2.5. Kontsonante ALBOKARIAK

- Mihiak airea aurretik ateratzea galarazi eta alboetatik ateratzen da.
- Bai euskarak eta bai gaztelarak bi soinu albokari.

Albeolarrak: I	Albeolo eta mihiaren arteko kontaktua	Lotsa
Sabaikariak: II	Mihia eta ahosabaiaren arteko kontaktua	Pello, Oilo

2.6. Kontsonante DARDARKARI

Mihiaren puntak bibrazio mugimendu azkar bat burutzen du.

Goiko albeoloak ukitu eta airearen irteera oztopatzen da, mihia dardarraraziz; ondorioz irteera kanala oso azkar ireki eta itxitzen da.

Albeolarrak: r, rr	Mihia eta albeoloen arteko kontaktua	Bere, Erre
--------------------	--------------------------------------	------------

GAI HONETAN GARRANTZITSUENA → Zer da fonema?, hauen barnean azpiegiturak daudela jakin eta gehienekin familiarizatu .

3. GAIA: Ahotsaren produkzioa (*AZTERKETAN SARTUKO DA)

3.1 SARRERA

Hiru maila:

1. Haize sistema: birikak, trakea, diafragma
2. Sistema bibragailua: laringea, ahots kordak (glotisean -laringean-daude kordak)
3. Sistema durundatzailea: faringea, sudur-hodiak, ahoa eta buru-hezurreko sakonunea. Hitzaren artikulazioaren eta ahots tinbrearena.

3.2. ARNAS- MEKANISMOA: DIAFRAGMA

- Ahotsaren eta abestearen gihar oinarritzkoa
- Biriken azpian dago.
- Bere mugimenduaren bitartez airearen sarrera-irteerak kontrolatzen dira.
- Bi urrats:
 - Arnas-hartzea
 - Arnas botatzea

3.3 MEKANISMO AHOSKATZAILEA: AHOTS KORDAK

- Glotisean dago
- Kordak? Ez: tendoi elastiko edo malguak
- Biriketarik aire presioa > bibrarazi > ahotsa
- Arnasketa prozesuan kordak irekita daude eta atsedean hartzen biriketarik ateratzen den airea atera dadin.
- Abesteko edo hitz egiteko, tenkatu (tensar), bat egiten dute eta haien artean pasatzen den aireak bibrarazi egiten ditu.

3.4 MEKANISMO DURUNDATZAILEA

- Ahotsa, ahots kordek osatzen duten moduan = oso ahula
- Erresonantzia kaxa" behar du soinua zabaltzeko:
 - Ahots-barrunbea: ezpainak, masailezurra, masaila, mihia, hortzak, albeoloak ahosabaia, eta ahosabai biguna.
 - Sudur barrunbea: laringea, sakonunea eta sudur-hobiak
- Organo durundatzaileak: Aktiboak eta Pasiboak

4. GAIA: Ahotsaren ezaugarriak

4.1. SARRERA

Ahotsaren ezaugarriak (edozein soinu):

1. Intentsitatea → Arnas mekanismoa
2. Iraupena → Arnas mekanismoa
3. Tonua → Mekanismo Ahosk (laringea)
4. Tinbrea → Mekanismo Durund

4.2. INTENTSITATEA

- Ahotsaren potentzia edo indarra
- Aireak ahots kordetan egindako presioa (+/-)
- Bibrazioen anplitudea:
 - Eskasa bada > intentsitate baxua
 - Handiegia > intentsitate altua
- Neurria: dezibeletan
- Adibidez:
 - Hizketa batean 30 dz
 - Tenore batek 120 dz
 - Irakasleak... 80 dz ?? (mugan!), 80tik gora ahotsa oso preparatuta egon behar delako lesinorik ez eukiteko.
- Intentsitatean eragina duten faktoreak:
 - Hizlariaren jarrera (espresibitatea, sentimenduak)
 - Hitzei emandako garrantzia (azpimarratu)
 - Arnas mekanismoaren erabilera
 - Testuingurua (lekua)
 - Hizkuntza
 - Irratian: mikroa

4.3. IRAUPENA

- Soinuak denboran zehar irautea... horregatik entzun
- Gutxienez: 60 milisegundu
- Arnas gaitasunaren arabera
>>>>>>> esatariak derrigorrez kontrolatu beharrekoa
- Esaldiaren esanahia baldintzatu dezake
- Elementu pertsonala: bakoitzak desberdin
- Iraupenean eragina duten faktoreak:
 - Adinak
 - Nortasunak eta jarrerak
 - Emozioek
 - Ezaugarri sozio-kulturalak

>>>> Ad: Estatu mailan: erkidego bakoitzean desberdin

- Esatariak: kontutan hartu behar faktoreak

4.4. TONUA

- Ahotsaren altuera
- Ahots kordek segunduko duten bibrazio kopuruaren arabera
 - Bibrazio asko > tentsio + > ahotsak gora > zolia (agudoa)
 - Bibrazio gutxi > tentsio - > ahotsak baxu > lodi
- Soinuaren klasifikazioa tonuaren arabera
- Hizketan: 12 tonu +/-
- Bibrazio frekuentzia: hertzioetan
- Batazbesteko tonua: ahotsaren erregistroa
- Tonuan eragina duten **faktoreak**:
 - **Bibrazio frekuentzia**:
 - ➔ Gizonezkoak: 60 - 200 hertz
 - ➔ Emakumezkoak: 150 - 350 hertz
 - **Pertsona bakoitzaren ahots kordak**: luzera eta lodiera
 - ➔ Umeak: 5-12mm
 - ➔ Emakumeak: 14-18mm
 - ➔ Gizonezkoak: 18-25 mm
 - **Emozioek**: elementu baldintzatzaileena (kontrolatzeko beharra ez transmititzeko)

4.5. TINBREA

- Ahotsaren nortasuna edo kolorea
- Pertsona bakoitza ezberdintzen gaituena
- Aurreko ezaugarrien batura
- Artikulazioaren garrantzia (erresonantzia)
- Imitazioak lortzeko: organo durundatzaileak moldatu
- Nola moldatu: zabalduz (irribarrea), tentsioak kenduz (laringe/arnasa)...
- Beti bakoitzaren aztarna...
- Tinbrean eraginda duten **faktoreak**:
 - Emozioek
 - ➔ Distiratzaila: pozik
 - ➔ Opakua: triste, beldurra, mina
 - ➔ Absolutua edo garbia: ohikoa, naturala
 - ➔ Erabatekoa: boterea, ziurtasuna
 - ➔ Itzalia: sekretuak
 - Ahotsaren ezagutzak eta heziketak

5. GAIA: Ahotsa lantzen (zaintzen) (*AZTERKETAN SARTUKO DA)

5.1. SARRERA

Badakigu: ahotsaren produkzioa (fisiologikoki).

Printzipioz, errazagoa izan beharko litzateke ahotsa hezitzea, era hobereanean erabiltzeko, errendimendu onena ateratzeko eta bere "osasuna" mantentzeko. GUZTI HONI: ORTOFONIA deitzen zaio.

5.2. ORTOFONIA

- Ahotsa era egokienean erabiltzea
- Ahotsaren heziketa (ez "ber")
- Tradizio falta: hizketan, edonor, edonola
- Ardura: lanaren ardatza
- Ezinbesteko faktoreak
 1. Teknikoak
 2. Fisikoak
 3. Psikologikoak
 4. Kanpokoak

5.3. FAKTORE TEKNIKOAK

- Teknika landu behar: ongi kolokatu organoak.
- Gakoa: fonazioan gainesfortzurik ez (hortik gaixoak)
- Adibideak: oihi egin, gehiegi hitz egin, eztula, tonu desegokia erabili, eta abar.
- Ariketak: erlaxazioa, arnasketa, fonazioa, artikulazioa

A. ERLAXAZIOA

- Tentsioa (zama/sorbaldako muskuluetan) lesioen jatorri
- Erlaxatzen bagara, gure ahotsa irtengo da azkar, sakon eta luze
- Oso gomendagarria izaten da erlaxazio ariketak egitea okutatu baino lehen (Rodero). Zer egin dezakegu erlaxazio prozesu hori lantzeko:
 - Gorputza sentitu: guztia tentsionatu eta gero erlaxatu
 - Zer ikusten dugun...
 - Ariketa zehatzak: sorbaldak (↑↓O), burua/zerbikalak, baraila, ezpainak, mihia...

B. ARNASKETA

- Ahotsaren produkzioan paper inportantea
- Diafragmaren garrantzia (diafragma da muskulu zentrala)

- Ariketak:
 - Etzanda, arnas diafragmatikoa
 - Arnasa faseetan: hartu, lotu, bota... eta zatika
 - Kandelaren arnasa
 - Botatzean berbak (hilabeteak, silabaka, poesia...)
 - Fonemak botatzean: s, tx, ts, tz, z, f...
 - Etab.

C. FONAZIOA

- Fonazio teknika egokia <-> fonazio gaitasunak.(dependentzia) Fonazio teknika egokiak lantzen baditugu lortuko ditugu fonazio gaitasunak eta fonazio gaitasunak lortuz gero fonazio teknika egokia lortuko dugu.
- Zein da gure tonua? Norbere tonua zein den jakin behar da.
- Akats ohikoena da gure tonu naturala ez erabiltzea eta behartzea.
- Ariketak:
 - Hasperen egin (altu)
 - Aharrausi egin
 - Sirena (NINONINO...)
 - Do, re, mi... tonu bakoitzean esaldi bat > tonu berriak bilatzeko

D. ARTIKULAZIOA

- Ahotsa mantentzeko: artikulazio organuak ondo kolokatu
- Mihia: behean, tentsio gabe
- Ahoa: era borobilean zabalik
- Ezpainak: irribarre bidean
- Ariketak:
 - **Ezpainak:** zabaldu, muxuak, arraina, estutu, borobilak...
 - **Mihia:** atera, alboetara, gora/behera , borobiloak, barruan...
 - **Baraila:** eskuarekin, zabaldu, alboetara...
 - **Masailak:** puztu, jolastu, mihiarekin, eskuekin, arkatza ahoan

5.4. FAKTORE FISIKOAK

- Jatorri fisiologikoa duten arazoak
 - Artikulazio aparatuan: laringitis/faringitisak, sinusitis...
 - Arnas aparatuan: rinitis, bronkitis, asma...Artikulazio aparatuan: laringitis/faringitisak, sinusitis...
 - Arnas aparatuan: rinitis, bronkitis, asma...
 - Digestio aparatuan: diafragman eragina
 - Gaixo metabolikoak: gizentasuna (diafragman, erresonantzia gutxiago, etab.)

Gaixo metabolikoak: gizentasuna (diafragman, erresonantzia gutxiago, etab.)

Gomendioak: lo nahikoa, ahoa zaindu, tenperatura aldaketak sahiestu, korrienteak, edari hotzak, kontuz janariarekin....eta ariketak.

5.5. FAKTORE PSIKOLOGIKOAK

- Ahotsa: gure egoera emozionalaren isla
- Emozioak: zaman (laringean) kokatzen dira
- Ansiedadea, depresioak, tentsioa, nerbioak...
- Osasuna: fisikoa eta psikikoa

5.6. KANPO FAKTOREAK

- Gorputzarekin zerikusia ez duten faktoreak
- Ohikoenak:
 - **Tabakoa:** laringea iriritatu eta sikatu, ahots kordek mugikortasuna galdu...
 - **Alkohola:** laringeko mukosa kaltetu, flemak sortu etab.
- Beste faktore batzuk: toki zaratatsuak, aire girotua...

6. GAIA: Prosodia

6.1. DEFINIZIOA (irratirako)

“Irratiko prosodia entzumenaren ikuspegitik aztertuta esan daiteke tonu, intentsitate eta iraupenaren aldaketak eratzen dutela. Hauek indar adierazgarria ematen diote ahotsari, irratiko diskurtsoari zentzua emanez”

Emma Rodero

6.2. SARRERA

- Prosodia = entonazioa + azentua + erritmoa

PROSODIOA		
ENTONAZIOA	AZENTUA	ERRITMOA
TONU aldaketak	TONU, IRAUPEN eta INTENTSITATE aldaketak	IRAUPEN aldaketak

- Arreta pizteko ezinbestekoa (zentzua...)

6.3. ENTONAZIOA

- Mezu bati zentzua eta erakargarritasuna ematen dioten tonu aldaketak.
- Prosodiaren elementu adierazgarriena (atzerritar).
- Bi elementu:
 - Tonu mailak (tonemak)
 - Bukaera mugimenduak

1. TONU MAILAK (tonu fonemak)

- Edukiaren arabera: ahotsak maila bat edo beste bat.
- Lehen erabakia
- Mezu alaia/emozioduna vs. Serioa vs. Drama
- Ezinbestekoa mezua ulergarria izateko
- Akats nagusia izan daiteke
- Saihestu maila baxua eta uniformeak
- Ez abestu...
- Esaldi bukaeran eta hurrengoaren hasieran: aldaketa
- Helburuak: arreta piztu eta naturaltasuna lortzea

2. BUKAERA EDO BARNEKO LOTURAK (tonemak)

- Talde fonikoen bukaera: esaldi barnean zentzua eta melodia ematen dute. Bukaeran, zentzua.

- Bost mota:
 1. **Kadentzia:** / ↓ / Amaiera, beheranzko tonema
 2. **Antikadentzia:** / ↑ / Goranzko tonema, kontrastea adierazteko, datuak
 3. **Etetea:** / → / Aurreko silabaren tonu berdina, jarraipena, eten puntuak
 4. **Erdi-kadentzia:** / ↘ / Esaldi barnean, unitate fonikoen lotura txikia (eta)
 5. **Erdi-antikadentzia:** / ↗ / Esaldi barnean, jarraipen zentzua